



2023KO #INSTALARDE ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

GAIA

Aurkeztutako argazkien gaia 2023ko San Martzialen ingurukoa izango da: Ekainaren 28a, San Pedro Eguna eta San Martzial Eguna.

SARIAK (partaide bakoitzak sari bat besterik ez du eskuratzerik izango):

- **1. SARIA:** 100 euro + argazkiaren argitalpena 2024ko programan.
- **ZOKETA:** Parte hartzen duten beste persona guztien artean 50 euroko saria zozketatuko da.

FUNTZIONAMENDUA

Lehiaketa hau %100 online izango da. Parte hartzen duten pertsonak argazkia bere Instagram kontuaren *storie*-tara igo behar dute @IrungoAlardea aipatuz eta #instalarde hashtag-a edo hitz klabea erabiliz uztailaren 1eko eguerdiko 12:00etatik uztailaren 2ko eguerdiko 12:00ak arte.

Parte hartzeko bi bide daude Instagram kontuaren motaren arabera:

- Parte-hartzailearen kontua publikoa bada, ez du beste ezer egin beharko.
- Parte-hartzailearen kontua pribatua bada, *storie*-ren pantailari kaptura bat egin beharko dio eta mezu pribatu baten bidez @IrungoAlardea kontura bidali

Parte-hartzea lehiaketan abian jarriko da @IrungoAlarde-ren profilean argazki horiek elkar banatzen hastea. Hurrengo 24 ordutan *like* gehien lortzen dituen argazkia lehiaketaren irabazlea izango da.

Ezinbestekoa da parte hartzen duten profiletatik @IrungoAlardea kontua jarraitzea.

Antolakuntzak lehiaketaren helburuarekin bat egiten ez duten argazkiak ez elkar banatzeko eskubidea izango da.

AURKEZTURIKO ARGAZKI KOPURUA

Instagra kontu bakoitzak ez du 3 argazki baino gehiago aurkezterik izango.

PARTE HARTZEKO EPEA

Argazkiak parte hartzen duen pertsonaren profilean igo beharko dira uztailaren 1eko eguerdiko 12:00etatik uztailaren 2ko eguerdiko 12:00ak arte.

Jaso ahala @IrungoAlardea-ren profilean elkar banatuko dira eta bozketa hemen egingo da. Irabazlea nor den uztailaren 3an jakinaraziko da.

ESKUBIDEAK ETA OBREN ITZULKETA

Saritutako argazki guztiak San Martzial Alardeko Agintarien Batzarraren esku geratuko dira eta nahi duen moduan erabiliko ahalko du. Horrela, saria jaso ahal izateko argazkia kalitate onean emailez bidali beharko da.

Gainera, antolakuntzak beste argazkiak kalitate onean bidaltzeko eskatu ahal izateko eskubidea izango du etorkizunean nahi izanez gero erabili ahal izateko.

Erakundeari dagokio edozein zalantza edo ezusteko ebaztea, eta bere erabakia apelaezina izango da.

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek erabat onartzen direla.



EUSK